

Hizketan hasi ezinik

Azaroaren 26an, Donostiako EHUren Barriola eraikinean 9:00etatik 14:00etara

08:30 - 09:00 ATE IREKIERA

09:00 - 09:15 SARRERA - HIK HASIKO KIDEAK

09:15 - 11:00 HITZALDIA. "Komunikazioaren eta hizkuntzaren zentzua"

CIRA RODRIGUEZ JORGE, Psikomotrizista terapeuta, diafreoterapeuta eta logopeda.

Gaur egun hizkuntzaren garapenean berandutzea gertatzen ari da gero eta sarriago, eta honek haurren garapenean eta nortasunaren eraikuntzan ondorioak ditu.

Inguruaz ezagutzen ari den haurarentzat dena berria eta interesgarria da. Ezagutza prozesuan, lengoaiak laguntzeko funtzioa dauka, zaintzekoa. Haurrak guztia behatzen du, guztia ukitzen, imitatzen eta esperimendatzen du. Horiek guztiak bere lengoia bere zentzu guztietan eraikitzeko espazioak, keinuak, emozioak eta hitzak dira.

Ongizateak zerikusi estua dauka norbere gorputzarekin, norbere buruarekin, ingurunearekin eta baita besteekin ere.

11:00 - 11:30 ATSEDENALDIA

11:30 - 12:30 HITZALDIA. "Euskara asko eta euskara gutxiago erabiltzen duten haur euskaldunen hizkuntza garapena"

MARIJO EZEIZABARRENA SEGUROLA, EHU-ko ELEBILABeko ikertzaile nagusia eta Hotsetik hitzera liburuaren egilea Junkal Gutierrezekin. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean irakaslea.

Hitzaldi honetan haur euskaldunen hizkuntzaren garapena neurtzeko erabili ohi diren zenbait teknikaren berri emango da. Teknika horiek Euskal Herriko ingurune desberdinetan bizi diren haur euskaldunen hizkuntza ezagutza eta erabilera datuak jasotzeko aukera eman dute, erakusten digutenak haurren eta haien inguruko hizkuntza-erabilerak haurren hizkuntza garapenean nola eragiten duen.

12:30 - 13:30 HITZALDIA. "Hizkuntzaren garapena sustatzen"

NEKANE GALPARSORO IZAGIRRE, Logopeda eta neuropsikologoa. Neure klinikako koordinatzailea, hizkuntza-ebaluaziorako tresnen garapena, ebaluazio neuropsikologikoa eta hizkuntzaren nahasmenduen eta zailtasunen diagnostikoa.

Hizkuntza gizakion berezko gaitasunetako bat bada ere, bere garapen egokia gauzatzeko testuinguruaren laguntza ezinbestekoa da. Hizkuntzak komunikazioa ahalbidetzen du eta horrek, era berean, hain garrantzitsuak diren ezagutzaren bereganatzea eta pertsonen arteko harremanak. Horregatik, hizkuntzaren garapena sustatzen dituzten baliabideak eta estrategiak lantzea izango da hitzaldi honen helburua.

13:30 - 14:00 GALDERAK